

2024 ekitaldiko “Enpresak sortu eta garatzeko prozesua sustatzeko programa”ren barruan egin zenuten laguntza eskaerari buruzko ebazpenari erantsita, laguntzari buruz aspektu zehatz batzuk gogorarazi nahi dizkizugu.

1.- Erakunde onuradunen betekizun eta konpromisoak. (I. eranskina 8. oinarria)

8.1. Pertsona edo entitate onuradunek dirulaguntzak onartzeak martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, apirilaren 29ko 24/2008 Foru Dekretuak onartutako Erregelamenduak eta dirulaguntzen alorreko gainerako araudi aplikagarriak ezarritako betebeharrak betetzea dakar, baita oinarri orokor hauetan nahiz espezifikoen ezartzen direnak ere.

8.2. Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialen erabilera bermatuko da diruz lagundutako proiektuaren ondorioz egiten diren jakinarazpenetan, argitalpenetan eta zabalkunde jardueretan, hala agintzen baitu 2018ko ekainaren 26ko Diputatuen Kontseiluaren erabakiak, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta bere organismo autonomoen jardura esparruetan 2018-2022 aldirako onartzen duenak (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 149 zk. 2018ko abuztuaren 3koa).

8.3. Diruz lagundutako proiektuaren diseinu eta garapenean genero-ikuspegia gehitzea.

8.4. Diruz lagundutako proiektuan bermatzea komunikazio eta argitalpen guztietan hizkeraren erabilera ez sexista.

8.5. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak diruz lagundutako proiektu edo jardueren sustapen eta finantzaketari publikitate egokia ematea, Aldundiaren erakunde-irudiaren bidez zein finantzaketa publikoari eta esku-hartze publikoaren helburuari buruzko aipamenen bidez, horma-irudi, inprimatutako material, bitarteko elektronikoko edo ikus-entzunezkoetan, eta beste edozein euskarritan, edo komunikabideetan egindako adierazpenen bidez.

8.6. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak ezartzen dituen ebaluazio baldintza guztietan parte hartu eta bete beharko dira; horien bitartez, jarduerak eta emaitzak eta inpaktuak neurtuko dira eraginkortasunetik eta eragimenetik.

8.7. Dirulaguntza eman zenetik bost urteko epean, Gipuzkoako Lurralde Historikotik kanpo helbide soziala, fiskala edo produkzio zentroetako zati nabarmen bat beste toki batera eramanez gero, dirulaguntza itzuli beharko da eta 15. oinarrian ezarritakoa aplikatuko da.

2.- Diruz lagundutako jarduerak azpikontratatzeari. (I. eranskina 9. oinarria.)

Pertsona edo entitate onuradunek ezingo dute beste batzuekin hitzartu dirulaguntzaren xedeko jardura osoa ezta zati bat azpikontratatu.

3.- Dirulaguntzen bateragarritasuna edo bateraezintasuna. (I. eranskina 10. oinarria.)

10.2 IV. eranskinean aurreikusitako dirulaguntzak ez dira bateragarri izango Gipuzkoako Foru Aldundiak (edo bere Fundazioak) helburu bererako ematen dituen beste laguntza batzuekin. Aldiz, bateragarri izango dira Estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatuk helburu bererako emandako dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuekin, betiere diruz lagundutako jardueraren kostua gainditzen ez bada eta eragotzi gabe gai horren inguruan beste laguntza batzuen araudiak esaten duena.

4.- Dirulaguntzak ordaintzea. (I. eranskina 11. oinarria.)

11.2. IV. eranskinean aurreikusitako dirulaguntzak, proiektuak amaitutakoan entitate onuradunari ordainduko zaizkie, 13.4. oinarrian aurreikusitako justifikazioa aurkeztu eta gero.

11.3. IV. eranskineko diruzko dirulaguntzetan, salbuespen gisa, laguntza programaren helburua -enplegua sortzea-, persona edo entitate onuradunen ezaugarria -ekintzailtzari laguntza ekosistemaren eragilea- eta, gainera, kasu batzuetan irabazi asmo gabeko entitateak direla kontuan izanda, ordainketa aurreratutako egin daitezke, bermerik gabe, diruz lagundutako jarduerak aurrera eraman ahal izateko beharrezko finantzaketa moduan, pertsona, enpresa edo erakunde onuradunak eskaera egin eta finantzazio beharra duela zuritu ondoren. Laguntzaren aurrerakinak proiektuari ekiten zaionean eta hasiera hori behar bezala egiaztatuta dagoenean ordaindu ahal izango dira, betiere, baliabide nahikoa bada eta diru laguntza osoaren % 60 gainditzen ez bada. Halaber, dirulaguntzaren izaerak hala justifikatzen duenean, ordainketa berri bat egin ahal izango da, lehen egindako ordainketarekin gehituta dirulaguntza osoaren % 85ekoa baino txikiagoa izan behar duena, betiere lehen aurreratutako diru kopurua behar bezala eta dokumentuz zuritu bada, beharrezko finantzaketa egiaztatzen bada, baliabide nahikoa bada eta diruz lagundutako jardueren gauzatze eritimoarekin eta aurkeztutako zuriaketekin bat baldin badator.

Gainontzeko kopurua proiektuaren amaieran eta 13.4. oinarrian aurreikusten den dokumentazioa aurkeztean ordainduko da.

11.4 Salbuespen gisa, IV. eranskinean xedatutakoaren arabera emandako dirulaguntza oso-osorik ordaindu ahal izango da proiektua edo jarduera amaitu baino lehen, diruz lagundutako jarduerak aurrera eraman ahal izateko beharrezko finantzaketa moduan, horretarako banku edo finantza erakundearen abala aurkeztu beharko da, Gipuzkoako Foru Aldundiaren iritziz nahikoa dena. Eratu beharreko abal horren zenbatekoa ordainketa aurreratuarena % 3 gehituta izango da.

Abala indargabetu egingo da dirulaguntzaren xedeko proiektua amaitu dela deskargu tekniko, ekonomiko eta finantzarioz egiaztatzen denean, hain justu, 13. oinarrian aurreikusten den dokumentazioa aurkeztuta.

11.5. Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauaren 32. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz, IV. eranskinean jasotako diruzko laguntzetan ezin izango da inolako ordainketarik egin persona edo entitate onuradunak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko edota entitate laguntzaileekiko betebeharrak betetzen ez dituen bitartean. Horregatik, ordainketa egin baino lehen, Ekonomia Sustapeneko Zerbitzuak betebeharrak betetzen dituela egiaztatuko du. Horretarako, zuzenean eskatuko ditu datu horiek dagozkion organismo igorleetatik; hori posible izango ez balitz, eskatzaileari eskatu ahal izango zaio dagozkion dokumentazioa aurkeztea.

5.- Diruz lagundu daitezkeen kostuak. (IV. eranskina 4. oinarria.)

Diruz lagunduko diren kostuak ondorengoak izango dira:

- Enpresa esparruan edo proiektuaren araberrako berariazko esparruan gaitasunak eskuratzea.
- Kanpo aholkularitza eta laguntza teknikoaren gastuak.
- Prospekzio azterlanak eta dokumentazioa.
- Azoketara joatea, bidaiatzea eta abar.
- Maketa eta prototipoak egitea.

Egindako gastuak ez dira diruz laguntzeko modukotzat joko, baldin eta horietako fakturaren oinarri zerga 100 eurora iristen ez bada.

6.- Dirulaguntza zuritzea. (I. eranskina 13. oinarria.)

13.1 Kasu guztietan, pertsona edo entitate onuradunak frogatu beharko du diruz lagundutako jarduera gauzatu izana, baita jarduera horrek sortutako kostuak ere.

13.2 Diruz lagundutako proiektua edo jarduera urteko deialdian ezarritako epeetan justifikatu beharko da.

13.4 Urteko deialdian zehaztutako epearen barruan, IV. eranskineko erakunde onuradunek justifikazio-kontu bat aurkeztu beharko dute, honako agiri hauekin:

– Dirulaguntza emateko ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen jarduera memoria, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazita Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuaren web orrian eskuragarri dagoen ereduaren arabera. Proiektua gauzatu bitartean sortutako agiri eta txosten guztiak erantsi beharko dira, baita proiektuari buruzko dokumentazio grafikoa, argazki bidezkoa edo ikus-entzunezkoa ere.

– Memoria ekonomikoa, jardueren kostua frogatuko duena. Honako edukiak izango ditu:

a) Zerrenda sailkatu batean jasota, jardueraren gastuak, bakoitzaren hartzekoduna eta agiria, zenbatekoa, jaulkipen data eta ordainketa data adierazita. Dirulaguntza aurrekontu baten arabera ematen bada, horrekiko desbiderapenak adieraziko dira.

b) Fakturak, edo merkataritzako trafiko juridikoan haien pareko frogabaliak edo eraginkortasun administratiboa duten agiriak, aurreko paragrafoan aipatutako zerrendan adierazitakoak, eta, behar izanez gero, ordainketaren egiaztagirak.

c) Beharko balitz, aurreko a) atalean aipatu den zerrendara gehitutako gastu orokorrak eta/edo zeharkakoak banatzeko irizpideak adieraziko dira.

d) Diruz lagundutako jarduera finantzatzeko jaso diren beste diru sarreren edo laguntzen zerrenda xehatua, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

e) Entitate onuradunak, ekipo-ondasunen horniduran edo aholkularitza edo laguntza teknikoaren arloko enpresen zerbitzu-prestazioan, diruz laguntzeko moduko 15.000 euroko edo hortik gorako kostuak egin baditu, eskatutako hiru eskaintzen artean egindako aukeraketa egiaztatzen duen dokumentazioa, non eta laguntza horren ezaugarri bereziak direla-eta behar adinako enpresa edo profesionalik ez dagoen zerbitzu horiek emateko, edo kostua dirulaguntza eskatu aurretik egin den. Aurkeztu diren eskaintzak, justifikazio fasean edo, bestela, dirulaguntza eskaeran aurkeztu behar direnak, efizientzia eta ekonomia irizpideen arabera hautatuko dira. Hautatutakoak proposamen ekonomikorik onenak ez badira, berriaz zuritu beharko dira memoria batean.

13.5 Kostuak egiaztatzeko jatorrizko agirien kopia elektronikoa, informatikoa edo telematikoa aurkeztuko da, baldin eta agiri horien egiazkotasuna, osotasuna eta zaintza bermatzen badira.

13.6 Dirulaguntza justifikatzeko ezarritako epea amaitu eta ez badira oinarri hauetako 3. eta 4. ataletan aipatutako agiriak aurkeztu, organo eskudunak 15 eguneko epea emango dio persona edo entitate onuradunari agiri horiek aurkezteko. Bigarren epe horren barruan justifikazioa aurkezten ez bada, 15. oinarrian aurreikusitako ondorioak eragingo ditu.

13.7 Pertsona edo entitate onuradunak, laguntza ematea bultzatu zuen jarduera burutu izanaren eta izanaren egiaztagiria eta, IV. eranskineko diruzko laguntzen kasuan jasotako fondoak aplikatu izanaren egiaztagiria ere, 4 urtez gorde beharko ditu nahitaez. Epe hori kontatzen hasiko da persona edo entitate onuradunak aipatu ziurtagiriak aurkezteko ezarrita dagoen denbora amaitzen denetik aurrera.

13.8 Oinarri honetako 3. eta 4. puntuetan adierazitako dokumentazioa aurkeztu ondoren, Ekonomia Sustapeneko Zerbitzuak egiaztatuko du egoki diren egiaztapenak egingo ditu.

Egiaztapen horretatik ondorioztatzen bada diruz lagundu daitekeen kostua emandako dirulaguntza baino txikiagoa dela, doitu egingo da dirulaguntza. Dirulaguntza justifikatzeko ezarritako baldintzak edo dirulaguntzaren xede ziren helburuak, osorik nahiz zati batean, ez badira bete, horren berri emango zaio eskatzaileari egiaztapenaren emaitzeekin batera, eta aldi berean hasiera emango zaio gauzazko laguntza jasotzeko eskubidea edo dirulaguntza kobratzeko eskubidea galdutzat emateko prozedurari, edota diru laguntza osorik nahiz zati batean itzultzeko prozedurari 15. oinarrian aurreikusten da.

6.-Ebazpena aldatzea. (I. eranskina 14. oinarria.)

14.1. Pertsona edo entitate onuradunek organo emaileari eskatu ahal izango diote, diruz lagundutako jarduera egiteko epea amaitu aurretik, aldatu dezala dirulaguntzak emateko ebazpena, baldin eta finkatutako epeak luzatzea, emandako diru laguntza murriztea, diruz lagundutako aurrekontu atalak aldatzea edo jardueran bildutako ekintzak aldatzea badakar. Aldaketa horiek ezusteko kausen ondorio direnean edo jardueraren helburua lortzeko beharrezkoak direnean baimenduko dira, betiere dirulaguntzaren xedea aldatzen ez bada eta hirugarrenen eskubideak kaltetzen ez badira.

14.2. IV. eranskinean jasotako jarduketan kasuan (oinarri teknologikoko enpresak eta/edo enpresa berritzaileak sortzeko prozesuan laguntzeko dirulaguntzak), onuradunek dirulaguntzaren titulartasuna aldatzea dakarten aldaketak eskatu ahal izango dizkiote organo emaileari, diruz lagundutako jarduera egiteko epea amaitu baino lehen. Entitate onuradunaren eskaeran dagokion arrazoia eta justifikazioa jasoko dira.

Dirulaguntzaren organo emaileak eskaera horren inguruan ebatziko du, kasu bakoitzean interes publikoko helburua betetzeko, baldin eta dirulaguntza baldintza objektiboen eta edonork betetzeko moduko arabera eman bada eta ez baldintza guztiz pertsonalen arabera, eta onuradun berriak dirulaguntzaren onuradun izateko oinarri arautzaileetako baldintza guztiak betetzen baditu.

Kasu horietan, onuradun berriak bere egingo ditu sor daitezkeen eskubideak eta betebeharrak, eta oinarri arautzaile hauetan entitate onuradunari jarritako betebeharrak guztiak bete beharko ditu. Eta halakorik balego, bere ardura izango da jasotako dirulaguntzak itzultzea eta ezarri daitezkeen zehapenak ordaintzea.

Onuradunaren aldaketak ekar lezake emandako dirulaguntza aldatzea, baldin eta dirulaguntza emateko finkatutako irizpideak aplikatzean espedientearen puntuazioari eragiten badio. Onuradunaren aldaketak ezingo du ekarri, inola ere, emandako dirulaguntza handitzea.

14.3. Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak ofizioz alda dezake dirulaguntza emateko ebazpena, betiere persona edo entitate interesatuari entzunaldia eskainita eta funtsak ezarri aurretik, baldin eta

dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzen aldaketak galarazten edo zailtzen badu erdietsi nahi den interes publikoa lortzea eta onuradunari ez bazaio kalte ekonomikorik eragiten.

14.4. Pertsona edo entitate onuradunak egiaztapen-agirian jakinarazten badu aldatu egin direla dirulaguntza emateko kontuan hartu ziren baldintzak eta, aldaketa horiek direla eta, lehen adierazi eran ebazpena aldatzea zilegi zatekeela, baina aldaketa onartu aurreko baimen administratiboaren tramitea ez zela egin bere garaian, Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak onartu egin ahal izango du aurkeztu dioten egiaztapen-agiria, baldin eta erabaki horrek hirugarren batzuen eskubideak urratzen ez baditu, eta alde batera utzi gabe persona edo entitate onuradunari jar dakiokkeen isuna, 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzak arautzen dituenak, dioenari jarraikiz.

7.- Ez-betetzeak eta itzulketak. (I. eranskina 15. Oinarria)

15.1 Pertsona edo entitate onuradunak ez baditu betetzen oinarri hauetan, martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauan, berau garatzen duen erregelamenduan (apirilaren 29ko 24/2008 Foru Dekretuaren bidez onartutakoa) eta gainerako araudi aplikagarrietan ezarritako baldintzak eta betebeharrak, dirulaguntza hartzeko eskubidea osorik edo zati batean galdu duela deklaratu da, eta hartutako dirua osorik edo zati batean itzuli beharko du, dagozkion berandutza interesekin batera, aipatutako Foru Arauak 35. artikuluan xedatutakoaren arabera eta 49. artikuluan eta ondorengoetan xedatutakoari jarraituz hortik erator daitezkeen erantzukizunen arabera.

15.2 Bete gabe utzi dena mailakatzeko, proportzionaltasunaren irizpideak erabiliko dira, eta irizpide horiek Ekonomia Sustapeneko Zerbitzuak balioetsiko ditu, egindako lanen arabera onuradunak proiektua zer neurritan burutu duen eta zenbateko dirulaguntza jaso duen kontuan hartuta.

15.3 Borondatezko itzulketatzat jotzen da persona edo entitate onuradunak dirulaguntza ematen duen organoak eskatu gabe egiten duena.

Itzultzeko prozedura hasteko, idatzi bat bidali behar dio Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurune eta Lurralde Oreekako foru diputatuari, eta bertan, datu hauek sartu behar ditu, nolana ere:

- Pertsonaren edo entitatearen izena eta identifikazio fiskaleko zenbakia.
- Ordezkararen izen-abizenak eta identifikazio fiskaleko zenbakia.
- Borondatezko itzulketa egiteko arrazoen azalpena.
- Tokia eta data.
- Sinadura.

Eskaera hori jaso ondoren, Ekonomia Sustapeneko zerbitzuak ordainketa gutuna bidaliko dio, itzultzeko zenbatekoa eta dagozkion berandutza interesak adieraziz.

8.- Europar Batasuna (I. eranskina 16. oinarria)

16.2 III. eranskinean (onuradunak enpresak direnean) eta IV. eranskinean aurreikusitako diru-laguntzak minimis laguntzak dira, Europako Erkidegoko araudi aplikagarriaren arabera.

16.2 Oinarri hauen III. eranskinean (onuradunak enpresak direnean) eta IV. eranskinean jasotako dirulaguntzak 2013ko abenduaren 18ko Europar Batzordearen 1407/2013 EB Erregelamenduan (ikus 2013ko abenduaren 24ko Europar Batasuneko Egunkari Ofiziala), minimis laguntzak Tratatu 107. eta 108. artikuluen aplikazioari buruzkoan, xedatutakoa beteko dute.

Europar Batasunak ezarritakoaren arabera, enpresa bakar bati emandako minimis laguntza ezin izango da 200.000 eurotik gorakoa izan dagokion ekitaldi fiskalean eta aurreko bi ekitaldi fiskaletan.

9.- Finantzaketa komunitarioa (I. eranskina 17. oinarria)

17.1. Dirulaguntzaren xede diren jarduerak Europar Batasunak aurreikusitako helburu eta ekintzekin bat datozen heinean, finantzaketa komunitarioa lortzeko izapidetuko dira.

17.2. Europar Batasunarekin batera finantzatzen diren diru laguntzak komunitateko araudiak eta garapen eta transposizio arauak arautuko dituzte, kasuan kasu.

17.3. Europar Batasunaren kofinantza keta lortuz gero, diru laguntzaren xedeari buruzko aipamen publiko orotan jasota geratuko da.

10.- Sustapen eta finantziazio publikoen eragina (I. eranskina 18. oinarria)

IV. eranskineko dirulaguntzetan, ebaluazio-prozesu integral bat ziurtatu ahal izateko, Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak, ahal den neurrian, Ogasun eta Finantza Departamentuarekin kontrastatuko ditu, entitate onuradunek baimena eman ondoren, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 92.1.l) artikuluan xedatutakoaren arabera, laguntza-eskaeraren aurreko hiru ekitaldi fiskaletan eta ondorengo bost ekitaldietan, eragiketa-bolumenari eta negozio-zifrari, esportazio-bolumenari, % 5etik gorako akziodunen nortasuna eta zerga helbideari, 3.000 eurotik gorako entitate hornitzaileei, beste sozietate batzuetako partaidetzari (nortasuna, zerga helbidea, portzentajea), oinarrizko jardueraren epigrafe fiskalari, batez besteko plantillari, plantillaren soldata-kostuari; eta, sozietateen gaineko zergaren kuota efektiboari buruzko datuak.

11.- Proiektuak gauzatzeko data.

Erakunde onuradunek **2025ko irailaren 30erako** amaitu behar dituzte diruz lagundutako proiektuak.

INFORMAZIO GEHIAGO

Enpresak sortu eta garatzeko prozesua sustatzeko programaren dirulaguntzen 2024. urteko deialdia ([G.A.O. 2024ko maiatzak 13, 91 zk.](#)).

Enpresak sortu eta garatzeko prozesua sustatzeko dirulaguntza programaren oinarri arautzaileak ([G.A.O. 2022ko uztailaren 4, 126 zk.](#)).

Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko, 3/2007 FORU ARAUA. ([G.A.O. 2007ko apirilak 12, 71 zk.](#)).

Apirilaren 29ko 24/2008 FORU DEKRETUA, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen Foru Arauaren Erregelamendua onartzen dueña ([G.A.O. 2008ko maiatzak 6, 85 zk.](#)).